

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Deialdia eta oinarri arauak Zambranako Toloño kaleko 1 zenbakian udal etxebizitza tasatu bat esleitzeko

Alkatearen martxoaren 23ko 61/2021 Dekretuak ebatzi du Zambranako udal prezio tasatuko etxebizitza bat esleitzeko deialdi publikoa eta oinarri arauak onestea. Eskabideak aurkezteko epea 2021eko maiatzaren 31n amaituko da. Ezarritako epe horretan eskaerarik aurkezten ez bada, hilabete luzatuko da epe hori.

Zambrana, 2021eko martxoaren 24a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI

OINARRI ARAUAK ARABAKO ZAMBRANAKO TOLOÑO KALEKO 1 ZENBAKIAN UDAL ETXEBIZITZA TASATU BAT ESLEITZEKO

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea sei udal etxebizitza tasatu esleitzeko prozeduraren baldintzak ezartzea da. Zambranako Udalak sustatu du etxebizitza horien eraikuntza, katastroko 62-001-1007 erreferentzia duen lurzatian, Zambranako Toloño kaleko 1ean.

Etxebizitza horiek hirigintzako udal planeamenduan ezarritako betekizun teknikoak eta diseinuaren ingurukoak betetzen dituzte. Bat datoz Arabako Lurralde Historikoko landa inguruneko ohiko arkitekturarekin eta tipologiarekin, batez ere Zambranako udalerrikoekin, eta ondo egokitzen dira ingurunean. Etxebizitza bakoitzak garajea, trastelekua eta lorategia dauzka lotuta.

Esleitu behar den udal etxebizitza tasatuaren ezaugarri zehatzak behin-behineko kalifikazioa jaso duen proiektu ikus-onetsian azaltzen dira.

Etxebizitza horiek sustatuz eta esleituz, Zambranako Udalak Zambranako landa ingurunean etxebizitza eskaria piztu nahi du udalerriko biztanleen artean, herria apurka jendez hustearen ondorioak ahalik gehien murriztu nahian. Dena dela, esleitze prozeduran parte hartzeko aukera emango die etxebizitza eskatzaileei ere, eskaera aurkezten duten unean Etxebiden (Etxebizitza Publikoen Erregistroan) inskribaturik badaude eta Añanako Kuadrillako beste herri batzuetan, Arabako Lurralde Historikoan edo bestela EAEn bizi badira.

Esleitzeko prozedurak indarrean den araudian eskatzen diren printzipioak bermatzen ditu: publikotasuna, lehia publikoa eta gardentasuna. Eskatzaileen artean zozketa egingo da esleitzeko geratzen den etxebizitza bakarra nork hautatu erabakitzeko.

Oinarri hauek garatu egiten dute Zambranako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen toki ordenantzan xedatutakoa (2019ko urriaren 23ko ALHAO, 123. zk.). Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gai guztietan ordenantza hori aplikatuko da.

2. Jabetza araubidea eta prezioa

Etxebizitza tasatuak jabetza araubidean eskualdatuko dira, eta Zambranako Udalak lehen-tasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubide iraunkorra izango du, Zambranako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen toki ordenantzaren 16. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Zambranako udal etxebizitza tasatu hauek saltzeko gehieneko prezioak ezingo du gainditu 1,60ko indizea, behin-behineko udal kalifikazioa lortzen den unean araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako edo babes sozialeko etxebizitzetarako aurreikusita dagoen gehieneko prezioarekiko. Honako hau izango da gehieneko prezioa:

2 ETXEBIZITZA (Toloño kalea, 1) 118.955,00 EURO

Eranskinak saltzeko gehieneko prezioa kalkulatzeko, udal etxebizitza tasatuen gehieneko prezioa 0,25 indizeaz biderkatuko da.

2 ETXEBIZITZAREN ERANSKINAK (GARAJEA ETA TRASTELEKUA) 11.500 EURO

Prezio horiei guztiei BEZa gehitu behar zaie.

Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzen bada, lehentasunez eroste edo atzera eskuratzeko horren xede den eskualdaketan finkatutako prezioa izango da eskurapen prezioa, eta bat etorri beharko du salmenta prezioarekin (salerosketako eskritura egilesten denetik aurrera EAEko KPlaren arabera eguneratuta), behin higiezinaren antzintasunaren eta kontserbazio egoeraren araberrako balio galeraren faktorea aplikatu ondoren.

3. Prezio tasatuko etxebizitza baten esleipendun izateko baldintzak

Deialdi honetako etxebizitza tasatuen esleipendun izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

A. BALDINTZA PERTSONALAK.

1. Pertsona fisiko adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, edo bizikidetzaren unitatea izatea.

Bizikidetzaren unitateen kasuan, titularkide izan behar dute honako kasu hauetan dauden adin nagusiko guztiek: irabazpidezko ondasunen eraentza duten ezkontideak; ondasunen banantze eraentza duten ezkontideak edo izatezko bikoteak (titularkidetasun ehunekoa erabaki ahalko dute); hirugarren mailara arteko alboko odol ahaideak diren bizikidetzaren unitateko kideak; bigarren mailara arteko ezkontza ahaideak diren bizikidetzaren unitateko kideak.

2. Etxebideren Etxebizitza Publikoen Erregistroan inskripzioa formalizatuta edukitzea oinarri hauek argitaratzen diren egunean.

3. Zambranako udalerrian erroldatuta egotea, edo bestela Añanako Kuadrillako udalerritan batean. Aurrekoetan erroldatuta egon ezean, Arabako Lurralde Historikoko beste udalerritan batean edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko batean erroldatuta egotea.

B. ETXEBIZITZAREN BEHARRA IZATEARI BURUZKO BALDINTZAK.

Etxebizitzaren beharra izateari buruzko baldintzak betetzea, Zambranako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen toki ordenantzan ezarritakoarekin bat etorritik.

Hau da, eskatzaileak edo bizikidetzaren unitateko kide guztiek, deialdi honen oinarriak onetsi baino gutxienez urtebete lehenagotik, ez jabetzan —osoa edo azalerakoa— ez biziarteko gozamen eskubide errealez beste etxebizitzarik ez izatearen betekizuna betetzea, etxebizitza beharrezana definitzen duen erkidego mailako araudian ezarritako inguruabarretan eta salbuespenekin, salbu eta duten etxebizitzak ez baditu betetzen arlo horretan indarrean dagoen araudi aplikagarrian ezarritako bizigarritasuneko gutxienerako baldintzak.

Etxebizitzarik ez izatearen baldintzak salbuespen hauek izango ditu:

a) Bizikidetzaren unitateko kideren batek partaidetza izatea beste etxebizitza batean, jabe modura, edozein tituluren bidez, eta ohiko egoitza izan gabe, betiere udal etxebizitza tasatuaren eskriturak osatu aurretik dagokion partaidetza kuota besterendu izana frogatzen bada.

b) Etxebizitza baten jabetzan duen partaidetza ehuneko 50 baino txikiagoa izatea, edo, ehuneko horren parekoa edo handiagoa bada, ebazpen judizialen batek etxebizitza erabiltzea debekatzea. Horren haritik, etxebizitza berriaren eskritura egin aurretik partaidetza kuota besterendu izana frogatu beharko da.

c) Bizikidetzaren unitate baten kide batek edo batzuek, errolda edo egoitza betekizuna betetzen badute, eta udal mugartetik kanpoko etxebizitza baten titular suertatuz gero, udal etxebizitza tasatuak jasotzeko aukera izango dute; halaber, udal etxebizitza tasatuaren eskritura egin aurretik etxebizitza besterendu izana frogatu beharko dute.

d) Bizikidetzaren unitatean kideren batek minusbaliotasun graduren bat baldin badauka, administrazio eskudunak ziurtatutakoa, eta ohiko egoitza gisa duen eraikinak ez baditu betetzen beharrezko irisgarritasunari eta jasogailuak izateari lotutako baldintzak.

e) Bizikidetzaren unitatean pertsonaren batek mugikortasun beharrianak baditu eta ohiko egoitza gisa duen eraikinak ez baditu betetzen beharrezkoa den irisgarritasunari eta jasogailuak izateari lotutako baldintzak.

C. BALDINTZA EKONOMIKOAK.

Ezarritako gehieneko eta gutxieneko diru sarrerak betetzea.

Horri dagokionez, etxebizitza tasatuen onuradunen gehieneko diru sarrera haztatuak (zenbatekoa babes ofizialaren arloko EAEko araudian xedatutakoaren arabera kalkulatu da) ezin dira izan araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko ezarritako gehieneko diru sarrereri 1,50eko indizea aplikatzearen emaitza baino gehiago.

Etxebizitza tasatuen onuradunen gutxieneko diru sarrera haztatuak, EAEko araudian xedatutakoaren arabera kalkulatuak, ezin dira izan etxebizitza sozialak (araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak) eskuratzeko ezarritako gehieneko diru sarrerak baino gutxiago.

Hala, urteko diru sarrera haztatuen gutxieneko eta gehieneko mugak 9.000,00 eurotik 58.500,00 eurora bitartekoak izango dira.

4. Eskaera eredia

Eskabide eredia baldintzen agiri honetako I. eranskinean dago jasota. Eredua horretan interesdunaren zinpeko adierazpena dago, non azaltzen baitu etxebizitza tasatu baten onuradun izateko baldintzak betetzen dituela eta agiri egokien bidez egiazta daitekeela hori.

5. Eskaerak aurkezteko tokia eta epea

Esleitze prozeduran parte hartzeko, interesdunek, nahitaez, agiri honen I. eranskinean dagoen eredian egin behar dute eskaera eta Zambranako Udalaren bulegoetan erregistratu, deialdia egiten duen ebazpen administratiboan zehazten den epean. Epe hori luzatu ahal izango da Alkatetzaren beste ebazpen baten bitartez (Alkatetza da Udalbatzak horretarako ahalmena emandako organoa).

6. Behin-behineko zerrendak

Eskaerak jasotzeko epea amaitutakoan, eskaerarako datuak aztertuko dira eta, azterketa horren arabera, parte hartzaile onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda egingo da. Baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoiak azalduko dira.

Parte hartzaileen behin-behineko zerrenda horretan, kupoetan edo azpizerrendetan sailkatuko dira parte hartzaileak, eman dituzten erroldatze datuak kontuan hartuta.

Zerrenda hori Zambranako Udalaren iragarki oholean eta web orrian ikusgai egongo da hamar egun baliodun, zerrendan ageri diren eskatzaileek erreklamazioak egin ahal izan dituzten, kaltetuta daudela iritziz gero. Halaber, eskaera izapidetzeko onartu ez eta zerrendatik kanpo geratu diren eskatzaileek ere erreklamazioak egin ahalko dituzte.

7. Behin betiko zerrendak

Erreklamazioak ebatzi ondoren, eskatzaile onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira Zambranako Udalaren iragarki oholean eta web orrian.

Erreklamazioa ebazten duen behin betiko ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da, edo bestela administrazioarekiko auzi errekurtsua Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian.

Behin betiko zerrendan sartzeak ez du esan nahi etxebizitzaren esleipendun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen direnik.

8. Esleitzeko era

Etxebizitza esleitzeko zozketa egingo da fede emaile publiko baten aurrean, sustapena arautzen duten oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen artean, azpizerrenden lote bakoitzeko (A, B, C, eta D), non eta ez den lortzen lote bakoitzeko eskatzaileen artean etxebizitzak esleitzeko akordioa.

Hala ere, Zambranako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen toki ordenantzaren 13. artikuluan ezarritako lehentasuna dela eta, eskatzaileak zer udalerritan dauden erroldatuta kontuan izanik honako kupo edo azpizerrenda hauek ezartzen dira:

- Esleitze prozeduran parte hartzeko baldintzak bete eta Zambranako udalerrian erroldatuta dauden eskatzaileak A azpizerrendan sartuko dira.

- Esleitze prozeduran parte hartzeko baldintzak bete eta Zambranen ez, baina Añanako Kuadrillako beste udalerrri batean erroldatuta dauden eskatzaileak B azpizerrendan sartuko dira.

- Esleitze prozeduran parte hartzeko baldintzak bete eta Añanako Kuadrillakoak ez diren Arabako Lurralde Historikoko udalerrietan erroldatuta dauden eskatzaileak C azpizerrendan sartuko dira.

- Esleitze prozeduran parte hartzeko baldintzak bete eta EAEko beste lurralde historikoetako (Bizkaia eta Gipuzkoa) udalerrietan erroldatuta dauden eskatzaileak D azpizerrendan sartuko dira.

Zozketa jendaurrean eta notarioaren aurrean egingo da. Udalak iragarki oholean eta web orrian jakinaraziko ditu zozketaren lekua, eguna eta ordua. Notarioak zozketaren eta horren gorabeheren akta egingo du.

Eskatzaileen arteko akordiorik ezean, hautaketa zenbakia zozketatuko da. Horretarako, zenbat etxebizitza esleitu behar diren, hainbeste txartel aterako dira.

Etxebizitza bakarraren zozketarako, honako lehentasun hurrenkera honi jarraituko zaio:

– Lehenik, A azpizerrenda (Zambranako udalerrian erroldatutako eskatzaileak).

a) A azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua bera bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia.

b) A azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua baino handiagoa bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia. Eta kupo horretatik kanpo geratzen diren eskatzaileekin itzarote zerrenda osatuko da.

c) A azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua baino txikiagoa bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia. Etxebizitza hutsak B azpizerrendako eskatzaileen artean esleituko dira.

– Bigarrenik, B azpizerrenda (Añanako Kuadrillako beste udalerrri batzuetan erroldatutako eskatzaileak).

a) B azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua bera bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia.

b) B azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua baino handiagoa bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia. Eta kupo horretatik kanpo geratzen diren eskatzaileekin itxarote zerrenda osatuko da.

c) B azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua baino txikiagoa bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia. Etxebizitza hutsak C azpizerrendako eskatzaileen artean esleituko dira.

– Hirugarrenik, C azpizerrenda (Añanako Kuadrillatik kanpoko Arabako Lurralde Historikoko beste udalerrri batzuetan errolatutako eskatzaileak).

a) C azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua bera bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia.

b) C azpizerrendako eskatzaileen kopurua esleitu beharreko etxebizitzaren kopurua baino handiagoa bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia. Eta kupo horretatik kanpo geratzen diren eskatzaileekin itxarote zerrenda osatuko da.

c) C azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua baino txikiagoa bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia.

Etxebizitza hutsak D azpizerrendako eskatzaileen artean esleituko dira.

– Laugarrenik, D azpizerrenda (Araban ez, baina EAeko beste lurralde historiko batean errolatutako eskatzaileak).

a) D azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua bera bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia.

b) D azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua baino handiagoa bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia.

c) D azpizerrendako eskatzaileen kopurua etxebizitza kopurua baino txikiagoa bada, haien guztien artean zozketatuko da hautaketa zenbakia.

Behin zozketa eginda, sustapen honetako itxarote zerrenda egingo da, eta bertan sartuko dira prozesuan parte hartu baina etxebizitzarik lortu ez dutenak.

Prozedura horren ondoren etxebizitzaren bat esleitu gabe geratzen bada, Udalak Arabako lurralde historikoaren eremuan erosteko babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaile direnen zerrenda eskatuko dio Etxebideri, eta geratzen diren etxebizitza horiek esleituko ditu Etxebideren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko inskripzioen antzintasunaren arabera hurrenkeran.

9. Esleipendunen behin-behineko zerrenda eta itxarote zerrenda

Zozketaren emaitzaren arabera, esleipendunen behin-behineko zerrenda egingo da, eta esleipena lortu duten pertsonen hitzordua emango zaie etxebizitza aukera dezaten, hautatu izaera eskuratu duten hurrenkeran.

Zozketan ezarritako hurrenkerari jarraituz, etxebizitza hutsak betetzeko itxarote zerrenda osatuko da, behean azaltzen diren kasuetan, kontuan izanik eskatzaileek zein kupotan/azpizerrendatan dauden eta zer lehentasun ordena duten.

Behin-behineko esleipendunen zerrenda eta itxarote zerrenda, halakorik bada, Zambranako Udalaren iragarki oholean eta web orrian argitaratuko dira. Zerrendetako edozeinetan ageri diren pertsonen zerrenden kontrako alegazioak egin ahal izango dituzte hiru egun balioduneko epean, zerrendak argitaratu eta biharamunetik hasita.

Behin-behineko esleipena banan jakinaraziko zaie esleipena egokitu zaienei, eta errekerimendua egingo zaie, etxebizitzaren onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak aurkez ditzaten 10 egun balioduneko epean:

a) Familia liburuaren fotokopia eta eskatzailearen NANaren fotokopia, eta, halakorik bada, ezkontidearena edo etxebizitza unitateko kideena.

b) Udalak emandako errolda ziurtagiria.

c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2019ko aitorpenaren fotokopia edo 2020koa baleuka, eta familia unitatean diru sarrerak dituzten guztien pentsioak edo/eta nominak.

d) Etxebizitza ez izateari buruzko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak eskatuko dira kontratua ikus-onesteko.

Udalak eskatzen diren baldintzak egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen agiri osagarriak eskatu ahalko dizkio eskatzaile bakoitzari.

Errekerimendu hori betetzen ez duen pertsona oro atzera egintzat joko da; horrela, itxarote zerrendan dagoen beste eskatzaile batek etxebizitza eskuratzeko aukera izango du.

Behin-behineko esleipendunak behin betiko esleipendun bihurtuko dira haien datu pertsonalak eta aurkeztutako dokumentazioa zuzenak direla eta eskatutako baldintzekin bat datozeela egiaztatu eta gero. Hala izan ezean, esleipena hutsik geratuko da eta itxarote zerrendara joko da hura estaltzeko.

10. Behin betiko zerrendak eta esleitze prozesua

Erreklamazioetarako epea amaitu ondoren edo, kasua bada, haiek ebatzi ondoren, Zambrenako Udalak zerrenda behin betiko bihurtzeko erabakia hartuko du eta etxebizitza esleituko du. Horretarako, esleipendunei hitzordua emango zaie hurrenez hurren, bakoitzari egokitu zaion hautaketa zenbakiaren arabera, etxebizitza hautatzeko.

Behin etxebizitza hautatuta, salerosketa kontratua sinatuko da, etxebizitza hautatzen denetik hasita 30 eguneko epean. Etxebizitza hautatzera edo kontratua sinatzera ez agertzea uko egitetzat hartuko da.

Jakinarazpenari dagokionez eta etxebizitza uko egiten zaiola ulertu ahal izateko igaro behar diren egunak zenbatzeari dagokionez, baliozkotzat joko dira esleipendunen telefono mugikorretara SMS bidez bidalitako jakinarazpenak, baita haiek emandako helbide elektronikotara bidalitako mezuak ere; eta, halakorik ezean, faxa, burofaxa edo posta ziurtatua.

11. Behin betiko esleipenaren osteko betebeharrak

— Kontratuaren formalizazioa: etxebizitzaren esleipendunek formalitate egokiak bete beharko dituzte, jabetzaren salerosketako kontratua sinatuz. Ildo horretan, oinarri hauen arabera nahitaez titularkide izan behar dutenek kontratua sinatu beharko dute.

Esleipendunak, justifikaziorik gabe, ezarritako epean salerosketa kontratua sinatzera agertzen ez bada, esleipenean atzera egin duela esan nahiko du. Horrenbestez, itxarote zerrendan dagoen hurrengo pertsonak edo bizikidetzak unitateak izango du eskuratzeko aukera.

Salerosketa kontratua sinatzen denetik hirurogei egun igaro baino lehen, salerosketako eskritura publikoa sinatuko da notarioaren aurrean. Horretarako, sustatzaileak hitzordua emango dio esleipendunari, hamabost egunetik gorako epea ezarritik.

— Diru kopuruak kontura ematea: kontratuko diru kopuruen kontzeptuan, ezin izango zaie eskuratzailerik eskatu etxebizitzaren eta eranskinen salmenta prezioaren ehuneko berrogeitik gorako aurrerakinik.

Salerosketa kontratuan aurreikusi ahal izango da kontura emandako diru kopuruen zati bat galdu litekeela baldin eta esleipendunak atzera egiten badu salerosketa kontratu pribatua sinatu eta gero.

— Udal etxebizitza tasatuak lagatzea: udal etxebizitza tasatuak titularren ohiko bizitoki iraunkorrak izan beharko dira; ezingo zaizkie etxebizitzak inolaz ere beste pertsona batzuei laga, ezingo dira hutsik izan edo bigarren etxebizitza modura erabili, ezingo zaie bizitokia ez den beste edozein erabilera eman, edo tokiko ordenantzarekin eta araudiarekin bat etorritik duten helburu zehatzari moldatu gabeko beste erabilerarik eman.

– Etxebizitzan bizitzeko betebeharra betetzen den ikuskatzea: Salerosketa kontratuan honelako baldintza klausula ezarri behar da: onuradunak konpromisoa hartu behar du etxebizitza okupatzeko eta bertan erroldatzeko kontratua sinatzen duenetik sei hilabete pasatu baino lehen. Baldintza hori betetzen ez bada, kontratua suntsiaraziko da eta etxebizitzaren jabe edo onuradun izateari utziko zaio.

Onuradunak dagokion betebeharra betetzen ez badu eta esleitutako etxebizitza ez badu erabiltzen ohiko bizitoki iraunkor modura, orduan okupazioa ahalbidetzen duen titulua bertan behera utziko da eta udalak indarrean dagoen legedian aitortutako nahitaezko desjabetze eskubidea baliatuko du.

Kontratuetan erosleen betebeharrak hau jasoko da: administrazioaren ikuskapen zerbitzuei lagundu behar dietela horretarako errekerimendua egiten zaienean; zehazki, etxebizitzan bizitokia izateko betebeharra zenbateraino betetzen den jakiteko ikuskatzaileek eskatzen dizkieten dokumentuak eman behar dituztela.

12. Datuen babesa

Datu pertsonalak babesteko Lege Organikoa betez, jakinarazten da ezen aurkezten diren datuak, bai eta lortzeko baimena ematen den datuak ere, udalaren titulartasuneko fitxategietan sartuko direla, oinarri hauetan ezarritako helburuekin prozesatzeko.

Adierazten da, halaber, Zambranako sei etxebizitza tasatu esleitzeko prozeduran parte hartzeko eskaera aurkeztuz gero Zambranako Udalari baimena ematen zaiola honako datu hauek iragarki oholean eta udal web orrian argitaratzeko: eskatzaileen identifikazio datuak, bizikidetzaren unitatearen osaera, bakoitzak zein zerrendatan parte hartzen duen, eta, baztertuen kasuan, zergatik baztertu dituzten.

13. Araubide juridikoa

Baldintzen agiri honetan berariaz xedatu ez diren gainerako egoeretan hauek aplikatuko dira: Zambranako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen Toki Ordenantza (2019ko urriaren 23ko ALHAO, 123. zk.); Babes Publikoko Etxebizitzaren Araudi Autonomikoa (martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko finantza-neurriei buruzkoa; martxoaren 28ko EHAA, 58. zk.); Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko agindua, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.) (2012ko abenduaren 12ko Agindu bidez zuzendua, 2012ko abenduaren 28ko EHAAn); Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko irailaren 14ko Agindua, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarreraren haztatuen mugak aldatzeko buruzkoa (2011ko irailaren 30eko EHAA, 187. zk.); Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko azaroaren 3ko Agindua, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).

14. Deialdian izandako aldaketak

Zambranako Udalak, bere iritzia arabera, deialdi hau eten edo aldatu ahal izango du.

I. eranskina
ESKAERA ORRIA

UDAL ETXEBIZITZA TASATUA ESLEITZEA SALEROSKETA ARAUBIDEAN
ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK

1. abizena

2. abizena

Izena

Sexua

Jaioteguna: Urtea Hila Eguna

Telefonoa/k:

Helbide elektronikoa:

NAN:

Helbidea: Kalea / Plaza eta zenbakia

Posta kodea eta herria

Egoera zibila:

Erroldatzea: non eta noiztik.

Badu mugikortasuna murrizten dion desgaitasun fisikorik?

Badu desgaitasun psikikorik?

EZKONTIDE EDO BIKOTEKIDEAREN DATU PERTSONALAK

1. abizena

2. abizena

Izena

Sexua

Jaioteguna: Urtea Hila Eguna

Telefonoa/k:

Helbide elektronikoa:

NAN:

Helbidea: Kalea / Plaza eta zenbakia

Posta kodea eta herria

Egoera zibila:

Erroldatzea: non eta noiztik.

Badu mugikortasuna murrizten dion desgaitasun fisikorik?

Badu desgaitasun psikikorik?

BIZIKIDETZA UNITATEA

1. KIDEA

Izen-abizenak:

NANa:

Jaioteguna:

Ahaidetasuna:

Sexua:

Egoera zibila:

Etxebizitzaren titularra:

Mugitzeko desgaitasuna:

Desgaitasun psikikoa:

2. KIDEA

Izen-abizenak:

NANa:

Jaioteguna:

Ahaidetasuna:

Sexua:

Egoera zibila:

Etxebizitzaren titularra:

Mugitzeko desgaitasuna:

Desgaitasun psikikoa:

3. KIDEA

Izen-abizenak:

NANa:

Jaioteguna:

Ahaidetasuna:

Sexua:

Egoera zibila:

Etxebizitzaren titularra:

Mugitzeko desgaitasuna:

Desgaitasun psikikoa:

4. KIDEA

Izen-abizenak:

NANa:

Jaioteguna:

Ahaidetasuna:

Sexua:

Egoera zibila:

Etxebizitzaren titularra:

Mugitzeko desgaitasuna:

Desgaitasun psikikoa:

AZALTZEN DU Zambranako (Araba)Toloño kaleko 1ean udal etxebizitza tasatu bat esleitzeko deialdia ezagutzen duela, baita deialdi hori arautzen duten oinarriak ere, eta, eskatzen diren baldintza guztiak beterik, izena eman nahi duela etxebizitza horietako bat erosi ahal izateko. Eta helburu horrekin, hau adierazten du:

-(e) ko udalerrian erroldatuta dagoela egun honetatik: (data)
- Jabetza araubideko etxebizitza baten eskatzaile modura inskribatuta dagoela Etxebideren Erregistroan.
- Ez duela etxebizitzarik jabetzan, eta ez dela etxebizitzaren bat erabiltzeko edo gozamenean izateko inongo eskubide errealen titularra.

– Ez bera ez bizikidetza unitateko beste inor ez dela izan beste etxebizitza baten jabe (jabetzan, azalera eskubidearekin edo gozamenean) oinarri hauen onespén egunaren aurreko urtebetean.

– Etxebizitza hori egoitza izango duen bizikidetza unitateko lagunak lehen zehazturikoak direla eta dagokion zergaldian jasotako diru sarrera haztatuak agiri honen amaieran zehazturikoak direla.

Lekua, data eta sinadura

....., 2021ekoaren(a)

ETXEBIZITZAN BIZIKO DIREN BIZIKIDETZA UNITATEKO
PERTSONEN ETA HORIEN DIRU SARREREN ZERRENDA

IZENA	NANA	AHAIDETASUNA	DIRU SARRERAK	URTEA